

KOSTU EGITURA



- Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?
- Ez ditugu kostu finkoak. Dinamoak erosi behar ditugunez, kostu aldagarriak baditugu.

Gogoratu:



• Edozein proiektu aurrera ateratzeak hainbat gastu egitea eskatzen duela, eta gure enpresa gastu horiei aurre egiteko gai izan behar dela.

• Kostu-egiturek ondorengo ezaugarriak izan ditzakete:

- Kostu finkoak
- Kostu aldagarriak
- Eskala-ekonomiak
- Hedapen-ekonomiak

• Negozio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako funtziona dezakete; beste batzuek, berriz, duten kalitate-maila handiagatik.

Ez auztu batzorde ebaluatzaileak baloratuko duena:



• Argi eta garbi zehaztea proiektuaren kostu guztiak, zuzenak zein zeharkakoak, finkoak eta aldagarriak, ekonomikoak edo bestelakoak (esaterako, ingurumen-kostuak edo sozialak).

• Zuen proiektuak hasieran inbertsio handia egin beharra eskatzen badu, beharrezkoa izango da inbertsio horien guztizko kostua zenba- testea.

IOIKANen kasu praktikoa:



Ion, Iker eta Aneren kasuan, bere kostuak minimizatzen saiatu dira.

• Kostu finkoak: oraingoz, kostu finko bakarra dute, webgunearen hostinga; izan ere, Ionon aitak utzitako garaje batean lan egiten dute, eta Ikerrek bere ekipo informatikoa erabiltzen du.

• Kostu aldagarriak: Ionek erabiltzen dituen materialak eta margoak eta erosi behar dituzten oholak, eta horiek duten salmenta-bolumena- ren arabera dira.

